




Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko



abagune aukera egokia, okasioa, parada	Sandrarekin gehiago hitz egiteko abagunerik izan.	210
abilezia trebetasuna	Eta beste zerbait egingo banu? Marrazten beti izan dut abilezia .	43
afektibitate maitasunezko keinuak	Ondo hartu gaitu baina modu nahiko hotzean, afektibitate edo berotasunik erakutsi gabe.	110
ahalegindu saiatu	...lepoa mugitzen hasi naiz gero, edo hobeto esanda, ahalegindu egin naiz, ezin izan dut eta.	199
ahi aia, orea, krema ('papilla')	Adibidez, ahiezko pastelekkin. Zuk egindako ahiezko pastelak jateko zortetik ez dut izan aspaldian.	20
ahopean marmarka, isilean hitz eginez	...eta auto barruetan horrelako aparailuak jartzea otu zitzaion astakirtena madarikatu dut ahopean .	29
aitorpen konfesioa, egia esatea	Ez nuen horrelako aitorpen zuzenik espero eta zer esan ez dakidala gelditu naiz.	107
aitzakia desenkusa, estakurua	Normalean izaten ez dudana segurtasun bat sentituz, ezetz esan nion. Eta aitzakia merke bat jarrita alde egin nuen lehenbailehen.	127
aje ondoeza, minak eta nekeak	Adinaren ajeak eta aurreiritzi denak barran utzi ditugu.	159
alargun senar edo emazte gabe geratu dena	Badakizu 2005ean, bere alargunak , <i>No woman no cry</i> izeneko liburu bat atera zuela?	121
albiste berria	Albiste onak dira. Ustez jipoitu duen gizona...	231
aldendu urrundu, uxatu	...beldur hauek aldentzen saiatu nintzen.	218
alferdura nagia	Gosea daukat baina bazkaria prestatzen hasi behar dudala pentsatzeak bakarrik ikaragarritzko alferdura sortzen dit.	18
amazulo ama eta ama nahi duen umea	— Amazuloa da gero... Ainire, zure osaba da! Gurekin afaltzera etorri da. — Bere ama berdin-berdina zen txikitana, amazulo hutsa.	46
amorru sumina, haserre bizia, rabia	...mihia zapaldu eta amorruari eusten saiatu naiz.	197
anker krudela	Kontu hau denbora gehiagoz aita edo amaren eskuetan uztea ankerregia litzateke.	85
antzeman igarri, nabaritu	Badakit ondo asko zer esan behar diodan, baina bere erantzuna nolakoa izango den ezin dut antzeman .	107
aparailu (nor bait) traste ederra, bihurria	Baina aparailua erantzun eta nor den ez galdetzea ere...	69
arindua hartu pisu bat kendu	Galdera gainetik kendu duenean izugarritzko arindua hartu duela iruditu zait.	180
arnasots arnasestua, ito beharra	Arnasots eta besoetako min artean amaitu dut azkeneko gaurko saioa, eta gogoz jaiki naiz lurretik, izerditsu baina gizon sentituz.	36
arrapaladan lasterka, arineketan	Maite eta Eider sartu dira logelara, arrapaladan eta iskanbilan.	11
arrats arrastia, eguerdi ondoko partea	Uztaileko arrats batean. Bero pisutsu horietakoa egiten zian. Igande eguerdi batean.	83
asaldatu aztoratu, urduritu	Badakit Kepa niri begira dagoela eta hori jakite hutsak asaldatu egin nau.	94
asto kaikua, kirtena	Ai, ze astoa zaren, Antonio. Benetan zuk uste duzu horrela moztu daitekeela hizketan ari den emakume bat?	139
ateraldi burutapena, zerbait bitxia esatea	Injustua iruditu zait oso bere ateraldia , eta nire duintasuna jokoan dagoela sentituz erantzun diot...	49



atso adineko emakumea, zaharra	...kirats hau usaindu eta herriko atso marmartienak famosoei buruzko iritziak ematen.	18
atximurka imurtxika, zimikoa	Bigarren atximurka mingarriagoa izan da. Emazteari gerri aldetik heldu eta niregana erakarri dut, gozo.	38
atzerritar kanpokoa	...gehienak bakarrik egon ohi dira. Familiekin gaizki ematen dira beharbada edo atzerritarrek direnez ez daude familiakoei...	141
aurpegiratu erreprotxatu	Arrebak erdi abandonatuta daukadala aurpegirutzen dit ahal duen guztietan.	67
ausardi kemena, atrebentzia	Ez dut umeei ezer esateko ausardiarik lortu.	145
auskalo batek daki, nork jakin	Burua tripa sartu dit erantzun moduan. Auskalo zergatik.	60
automata robota edo gisako makina bat	Ez dakit nola, baina lau urte joan zaizkit zulo horretan lanean, etenik gabe, automata moduan...	17
axolagabeki ardura gabe, pentsatu gabe	Ez gara ihartzen axolagabeki hartzen ditugun arriskuez,	166
aztarna zerbaiten arrastoa	Nire hitzek ezustean harrapatu dute eta beldur aztarna bat irakurri. Zalantza egin du gero.	99
aztoratu asaldatu, urduritu	Bezero gehien gehienak emakumeak izaten dira eta gizon bat sartzeak nolabaiteko aztoratzea ekarri du apaindegira.	117
baldar traketsa, dorpea	Itxura baldarreko pasta batzuekin itzuli da denbora gutxira.	82
barna zehar, barrena	...azken hitzek airean jarraitzen dute, bion pentsamenduan barna aurrera egin eta leku bat aurkitu nahian. Gero gaia beste norabide baterantz eraman du.	170
barre algara barre-karkaila, barre handia	Barre algara bat atera zaio.	205
bazterrak nahasi inguruak endredatu	—Besarkada bat etxeko guztiei. Esan laster egin behar dugula beste afari bat. Hantxe izango naiz laster bazterrak nahasten .	211
begiak bildu begiak itxi lo egiteko	Libek ez du arretarik kentzen ipuinetik. Logurak amorratuta egonda ere, badakit ez duela ipuina amaitu arte begirik bilduko .	10
begiei eragin begiak igurtzi	Libe loguretzen ari da pixkanaka. Begiei eragitearekin batera egin dit galdera.	10
begitarte aurpegia	Libek begitarte okertu du une batez, Hamel eta Getelez ahaztea leporatuko balit bezala.	10
behar gorri premia larria	Beñatek hartu du berriro hitza, eta konturatzerako negarrez dago nire besoetan, amaren behar gorria sentitzen duen ume galdu bat bezala.	172
behartsu pobrea, txiroa	“Jende behartsuak , behar handienak dituen jendeak, muxu zaratatsuak, besarkada estuak eta irribarre ozenak ematen ditu.”	81
berriketa hizketaldia	Berriketan hasi gara patxada ederrean	185
bertute dohaina, gaitasuna	Gustatzen zaizkidan gizonen bizitzetara berandu iristeko bertutea daukat.	158
betiere baldin eta	Umeak denbora labur batez bakarrik gera daitezke hemen, betiere nora joan hoberik badute behintzat.	136
betozko haserre aurpegia, purrustari	Aitziber uzkur samar sumatzen dut oraindik nirekin, zerbait esateko gogoia izan eta mihia zapaltzera derrigorluta dagoenak jarri ohi duen betozkoarekin .	55
bidezidor lasterbidea	Nahiko ondo ezkutatuta dago, bidezidor batean ia ikusten ez den bidexka bat hartuta.	135
bolada denboraldia	—Aitaxok eta amatxok zerbait esan behar dizuegu. (...) —Maiteri begiratu diot (...)—, boladatxo batean edo, ba agian aldaketa batzuk egin beharko ditugula...	178




buruhauste kezka, ardura, problema	Bere helburu bakarra arrebari laguntzea izango da orain eta ez nioke buruhausterik eragin nahi.	194
burutazio bat-batean burura etortzen den ideia	Burua uretan sartu dut, burutazio astun hauek uxatu nahian.	22
damutu garbatu, arrepentitu	—Zuk baduzu haurrik? —galdetu diot. Segituan damutu naiz. Mintz antzeko bat nabaritu zaio...	78
deskuidatu nahastu	Edo gaizki kalkulatu eta auzoko etxeren batekin deskuidatu dut eta norbait dago etxean.	69
dohain gaitasuna berezia, bertutea	Emazteari gerri aldetik heldu eta niregana erakarri dut, gozo. Nire seduzitzeko dohain guztiak martxan jarrita.	38
domatu hezi, formal ipini	Ilea domatu du azkenean: mototsa ezker sorbaldan erortzen zaio orain, ederra dago benetan.	14
duin dignoa, gizabidezkoa	Engainatuta etortzen dira ia denak, lan duin bat eta aurrera irteteko aukera onak dituztela pentsatuta.	141
duintasun dignitatea, izaera errespetagarria	Injustua iruditu zait oso bere ateraldia, eta nire duintasuna jokoan dagoela sentituz erantzun diot...	49
ebakuntza operazioa	Ebakuntza egiten ari dira oraindik.	89
egoeraren garratza egoera hain gogorra edo latza	...batetik bestera zu edo zure inguruko norbaiten bizitza nola alda daitekeen jabetzea. Egoeraren garratzak eskuetatik ikas egiten dizula ohartzea.	85
egokitu moldatu	Ia ez dugu hitzik gurutzatu ordutik hona, oraindik egoera berrira egokitzen ari garela ematen du.	177
egoskorra setatia, tematia, burugorria	Akats asko ditut eta oso pertsonalitate markatua ere bai. Egoskorra , perfekzionista eta urduri samarra naiz izatez.	22
emankor oparoa	Begi handi eta emankorrak dira, misterioz eta jakinduriak beteak.	228
entzutetsu ospetsua, famatua	Maite eta Miren segutuan hasi dira berriketan, Getarian ireki duten museo entzutetsu bat dela eta ez dela.	149
eraginkor efizientea	...gezurra izan liteke irtenbide eroso, simple, erraz eta eraginkorrena .	179
erail hil, asesinatu	Andaluzian eraildako emakume Kolonbiar baten notizia ematen ari dira.	54
erantzukizun erresponsabilitatea	— Erantzukizunak? Nork eta zuk hitz egin behar didazu niri erantzukizunei buruz? Hogei urteko nerabe baten bizitza daramazu, Beñat!	50
ernegatu sutan jarri, sumindu	Ernegatzen hasia nago jada. Errua nirea izango balitz bezala begiratzen dit.	28
erregutu mesedez eskatu, suplikatu	Erreguaren eta aginduaren artean dagoen tonu batean bota ditu amak azken hitzak.	81
errieta agiraka, deiadar, bronka	Errieta tonua ateratzen ari zaidala konturatu naiz.	103
errukarri pena ematen duena	Inpotentziaz beteriko aurpegi errukarria erakusten du. Negar egiteko zorian dago, baina zerbaitek eragotzi egiten dio.	48
errukior errukitsu	—Jo, aita, ilea nahastu didazu —bere tonu errukior berbera erabiltzen saiatu naiz, baina honek ez dio graziarik egin.	60
esanguratsu adierazgarria	Aitak begirada esanguratsu bat bota dit sukaldean gauzak utzi ditudanean.	87
eseki eskegi	Telefonoa eseki eta hasperen egin dut. Asko maite dut nire aita baina batzuetan neure onetik ateratzen nau.	21
estimatu aintzat hartu, baloratu	—Kepa, barkatuko didazu baina alferrik etorri zara. Nik... Nire burua gehiago estimatzin ikasi behar dut.	227



etsipenak jota desesperatuta, ilusio galduta	Jendea umore txarrez egoten da ia beti, edo triste, etsipenak jota .	75
exotiko arrotza	...milaka kilometrora dauden uharte exotikoetan beraien gorputz miwesgarriak kamerari erakusten, kobratuko dituzten milaka euroak...	90
ezustean bat-batean, deblauki, supituki	Haur baten eskuetan dagoen jostailu bat bezala sentitu naiz une batez. Ezustean harrapatu nauen gauza bat egin du orduan.	131
ezusteko ustekabea, sorpresa	Abeslariak bizitzak ezustekoak ematen dizkigula errepikatzen du behin eta berriz, ezusteko luze bat dela bizitza bera.	172
fedea sinesmena	Zerbaitetan fedea izan behar dugu, galdutako kausetan, besterik ezean.	94
ferekatu igurtzi, laztandu	Esertzeko keinu bat egin dit. Eskuak ferekatzen hasi da aurreko paperei begiratzen dien bitartean.	27
gailendu nabarmendu	...etorkizunean bere intuizioa gailenduko zela antzeman ezinik.	184
gainbegiratu erreparosoa, begitu ari bat	Gizartea nola dagoen gainbegiratu bat emanda, sozialki zuzenak diren aholkuak ematen primerakoa da nire ahizpa.	194
gaitzespen ezespina, txartzat jotzea	Emazteak gaitzespenez beteriko begirada bat bota dit segituan: umea ez beldurtzeko ari zait esaten, hitzik gabe.	13
gajo gaixoa, koitadua	— Ez dut korridorean ikusi. Hortik ez dela mugitu uste dut. Berandu hartuko zuen lo gajoak . Esnatu egingo dut, esna zaudela ikusteak on egingo dio.	202
gako giltza, kontua	Bizitza oso konplikatu da eta posible den guztia egiten dugu egokitzen joateko. Egokitzen jakitea da gakoa .	165
garratz desatsegina,	Umore garratza erakusten du baina samurra da eta entzuten daki.	193
gizagaixo koitadua	Benetan esan ote du ala gehiago ikusi nahi ez dituen bi pertsona gizagaixo besterik ez gara?	112
gomendio aholkua	Gomendio batzuk ere eman dizkit: bere gainean egoteko lehen egun hauetan, normalean baino errezago nekutzen dela...	101
gordin erreal, sukaldatu gabea	Negar zotinek eta hasperenek ez dute egia gordina eragotzi.	154
halabeharrez nahitaez	Gosaltzeko gogo eta tartetik hartu gabe joan naiz guraoen etxera. Kaleek gaueko misterio puntu horri eusten diote halabeharrez .	233
harrikoa egin ontziak garbitu	Dutxa azkar bat hartu, afari arin bat jan eta harriko egin ostean, kalerako bidean jarri naiz.	72
harrokeria harropuzkeria, handikeria	— Ez nau molestatu esan duenak bakarrik, esan duen harrokeria eta tontokeria tonu faltsu horrek gehiago.	150
hartu-eman tratua, erlazioa	Umore onez erantzun diot bigarren aldi honetan, eta ez dut egin itxurak mantentze aldera, beti izan baitut hartu-eman ona berarekin.	19
hasperen egin zinkurina, asnasa botatzea	Hasperen egin du berehala, pazientzia bildu nahian.	105
hausnarrean gogoeta egin, mediatu	Hausnarrean jardutea da bere egiteko garrantzitsuena, eta erabaki okerrak hartuz gero, ez zaitu bakean utziko.	129
heze apur bat bustia	Makurtu eta musu azkar eta heze bat eman dit masailean. Gero, belarri ondora gerturatu eta...	131
higuin nazka	Amorru eta higuin antzeko bat sentitu dut berehala. Gizon garrantzitsua dela sinetsita dago...	27
hipokrita itxurazalea	Benetan sinesten ez dituzun gauzak esatera bultzatuta ikus dezakezu zeure burua, eta esan eta gero, seguruenera hipokrita hutsa sentituko zara.	75
hitzak gurutzatu elkarrekin hitz egin	Hiru egun joan dira Maitek eta biok aukera onena banatzea izango zela erabaki genuenetik. Ia ez dugu hitzik gurutzatu orduetik hona...	177




hitzordu zita	Ez galdetu niri nivea, maskarilla bereziren bat edo zer arraio den, ez dut ideiarik (...). Oraindik ez dut hartu metrosexual egiteko hitzordurik .	33
hots egin deitu	Operazioak bi ordu baino gehiago irauten duela normalean eta bukatzen dutenean hots egingo didatela.	80
hunkigarria barne zirrara eragiten duena	Samurra eta gogorra da aldi berean, hunkigarria eta maitagarria. Ziurrenik ez zen benetan horrelako kasurik emango...	92
huts egin akatsa egin, falta egin	Ondo atera dadila azterketa bihar, baina ez hamarrik atera. Badaezpada hutsen bat ere egin, ados?	196
igarri asmatu, antzeman	Bere begiradan igarri dut estimatzen dituela nire hitzak baina segituan garrantzia kentzeko keinu bat egin dit.	140
imintzio keinua	Aloñarekin gelditu gara bi helduok. Musu txikiak eta imintzioak egiten hasi zaio berehala Aitziber	113
inozo inuzentea	Nik zer inozo aurpegi erakusten ote dudan pentsatu dut.	130
inposatu behartu, derrigortu	Ondo egon dela suposatu nahi dut, ama batek jarri behar dituen mugak inposatuz .	49
iratzarri esnatu, izartu	Nire lehen erreakzioa jaiki eta ama iratzartzea izan da.	199
irmotasun sendotasun, gogortasun	Bularrek ez dute duela urte batzuetako irmotasun bera, baina oraindik itxura ona erakusten dute...	23
irrist egin labain egin	Autoak irrist egin eta beste auto baten aurka jo du.	65
irudimen imajinazioa	Irudimen handia dauka, beti ari da pelikulak muntatzen, baita ezer ez dagoen lekuan ere.	119
iskanbila sesioa, kalapita	Giltza hotsa izan da sarrerako atean eta iskanbila eta kaosa nagusitu dira.	113
itxurak egin simulatu, plantak egin	Momentu honetan egin nahi nukeen azken gauza da, baina txosten garrantzitsua izan liteke eta itxurak egin beharko ditut behintzat.	26
izara maindiera, mihisea	Izara azpitik eraztuna ateratzen nindoan oraintxe.	209
izter hankaren goi partea	Uretan sartu naiz astiro eta segituan sentitu dut azkura moduko bat izterretatik gora.	19
izutu beldurtu	...gaurko umeek batzuetan robotak ematen dute. Izutu egiten naute.	195
jardun hizketaldia	Beste gauza batzuk aipatu eta segituan amaitu dut amarekiko jarduna .	72
jeloskor bekaiztia, zeloak dituen	–Hitz egiteko modu bat bakarrik zen. Jeloskor zaude orain ala?	103
jipoitu astindu	...emakume bat jipoitu dutela, gizonak edo mutil lagunak labana sartu diola, golpeak eman dizkiola konortea galdu duen arte...	107
jokoz kanpo ezustean, sorpresaz	¿Tu que opinas? Pilarren lotsagabetasunak jokoz kanpo harrapatu du Sandra.	210
kaoba zuhaitz mota, zur beltza	Kaobazko mahai sendo batek hartzen du estantziaren erdian eta ...	27
karkara barre-algara, algara	Alabaren karkara txikia.	12
keinu imintzioa, gestua	Dena berdin dago, baina beste kolore batez ikusten ditut kaleak, autoak, pertsonen keinu aspertuak, nekatuak, etsiak.	132
kemen adorea	...goibel dagoenari indarra eta kemena eman nahian.	75




kikara katilua, taza	— Eskuekin keinu urduriak egiten ditu etengabe. Kafearen kikara hartu eta probatu gabe utzi du berriro.	108
kiribildu kirrua	Bizkarrez ageri da emakumea, hogeita hamabost urte ingurukoa, eta tente dago, leiho batetik begira, biluzik. Ile kiribildua sentsualki erortzen zaio...	131
klandestino isilpekoa, legez kanpokoa	...gure guraso edo aitona-amonak zaintzera datozenak, pisu klandestino , ilun eta deserosoetan bizi diren kanpotarrak...	142
kokots aurpegi behealdeko irtengunea	Aurpegia aztertu dut amaitzeko: begi txiki baina sakonak, aho handi eta ezpain meheak. Kokots fin eta estua.	23
koldar beldurtia, ikaratia	Geure logelara abiatu naiz berriz, koldar hutsa sentituz.	41
korroskada ahopats zaratatsua, korrokada	Piura patetikoa dut. Sid Vicious-ek korroskada bat botako lidake muturrera orain ikusiko banindu.	53
kosk egin koska egin, haginka egin	Bost urterekin klaseko neska bati belarrarian kosk egin nionez zidalako egin berri zuen marrazkia erakutsi nahi.	238
krudela ankerra	— Ez dakit beraiek ados egongo liratekeen. Nik esango nuke... gure bizitza baino gogorragoa dutela beraiek. Krudelagoa , injustuagoa eta motzagoa.	166
kurrunka zurrunga	Bere lo kurrunken zaratek ez didate dudarik utzi.	199
labankada labana kolpea	Hogeita zortzi urte zituen biktimak, eta itxura guztien arabera, bere mutil ohiak hil du, hamasei labankada emanda.	54
laga utzi	Instintuari jarraitzen ari da, hausnarketak gerorako lagaz .	136
lainotasun engainatzen erraza izatea	Munduko erloju guztiak gelditu eta Libe lainotasun eta inozentziaz beteriko hiru urteetan gelditzea.	9
laka produktu kimikoa (adib. ilerako)	... automata moduan, erdi ametsetan, gehiegizko argi eta laka kirats eta gainerako produktu faltsu, ustel eta nazkagarrien erdian.	17
lanbro euri fina, langarra	Une batetik bestera, kalean aparkatutako autoak eta dendak lanbro artean ikusten hasi naiz. Negarrez ari naiz neu ere, bakarrik.	154
lausotu difuminatu, nahastu	Zure emaztearekiko dituzun sentimenduak lausotzen doaz eta urteetan eraikin duzun egoera hori (...) eror daitekeela ohartzen zara.	229
leporatu bota, akusatu	Ez dakit zer galdetuko didaten, ez dakit errua niri leporatzen didaten.	186
lizun lohia	Edo bidean begirada lizunak botatzen dizkioten zahar eta ez hain zahar horiei emakume eder horrek gizona baduela gogorarazteko.	76
logurak amorratuta egon logura handia izan	Logurak amorratuta egonda ere, badakit ez duela ipuina amaitu arte begirik bilduko.	10
lotsaizun ahalkea, lotsa	Erantzun beharrean, liburuaren azala erakutsi dit. “ Lotsaizuna ” irakurri dut. John Maxwell Coetzee.	36
lozorro lo sakona	Aitak zuzenean begiratu dit, ametsen lozorrotik atera ezinda.	82
lur jota abaildua, etsita, goibeldua	Negarrez hasi da berriro. Lur jota dago. Psikologo baten laguntza beharko du, besteak beste.	109
luxuriaz lohikeria, likiskeria	— Lau! Ez duzu denborarik galdu, e? —eta luxuriaz beteriko keinu bat bota dio Aitziberri.	139
madarikatu gogaikarria, malapartatua	Ordenagailu madarikatu hauek neure onetik ateratzen naute.	67
madarikatu birao egin, maldizinoka hasi	Madarikatzen hasteko gogoia sartu zait baina aitaren tonuak kasu egin behar diodala ohartarazten dit.	83
mahuka manga	Txaketa kendu eta alkandorako mahukak altxatu ditut.	25



makal ahula, gaixobera	— Zer moduz hartu dute? Ama gogorra da. Baina aita badakizu... Makal hutsa da. Seguru asko sufritzen ari da —erantzun dit azkar eta sufrimendu aurpegiz.	184
makulu euskarria, muleta	...eta oraindik baldar samar sentitu eta mugitzeko zailtasunak baditu ere, ez du makulurik behar behintzat.	148
makur deitoragarria, txarra	Ahaztu ote du lehengo egunean bere logelan sartu eta pijama jantera derrigortu nuen ekintza makur hura?	68
maltzur azpikeriazkoa, ez zintzoa, faltsua	Irri maltzur bat egin eta baietz egin du buruaz. Horrelako unetan denbora gelditzea nahiko nuke.	9
maneiatu manipulatu	Eiderrek barrez jarraitzen du, aurrean nahi duen eran maneiatu dezakeen jostailu bat duela jakinda.	59
mardul potoloa, betea, gizona	Hodei mardul eta nahasiak ikus daitezke zeruan.	72
marmarti ahapeka aritzen dena, gaizki esaka	Denbora guztian zutik eta besoak tentsioan, kirats hau usaindu eta herriko atso marmartienak famosoei buruzko iritziak ematen.	18
marruka orroka, oihu lazgarriak egiten	Ahoa zabaldu eta marruka hasi zen, bere hagin zorrotz eta ikaragariakerakutsiz.	13
mehatxatu zemaitu	Egunero, lantegi kanpoan egongo direla mehatxatu dute, pankarta erraldoi bat hartu eta bozgorailuz irtenbide egokiagoak exijituz.	95
mesfidati fidagaitz, aieruz, susmoekin	Adineko emakume betaurrekodun batek mesfidati begiratu dit bere ondotik pasa naizenean.	132
mespretxu gutxiespena, erdeinua	— Berriro aldizkarirako keinua egin eta nazka eta mespretxuzko aurpegia jarri du—.	92
miatu arakatu, bilatu	Txiste merke bat egiteko zorian nengoen horrekin baina hasperen egin eta eskuak mugitzen hasi da, ondoan duen poltsa barruan miatzen .	130
mintzo izan hitz egin, berba egin, solastu	Ez dakit zergatik, maitasun kontuak aipatzen dituen oro lekuz kanpo sentitzen naiz, ezin naiz horretaz berarekin mintzo .	21
miseria lazeria, premia gorria	Direnak eta ez direnak pasatzen zaizkio bertan, miseria ikaragarria sufritu behar du.	92
motots ile multzoa	Ilea domatu du azkenean: mototsa ezker sorbaldan erortzen zaio orain, ederra dago benetan.	14
mukizu mokotia, heldugabea	— Beñat! Ume mukizu bat besterik ez da.	48
murriztu gutxitu, eskastu	Ezagutu dituzten pertsonen kale egin diete hainbatetan, horrek besteengan dugun konfiantza murriztu egiten du.	144
musu aurpegia	Musu ikaragarriko gizon bat du ondoan eta ez dirudi...	90
nekagaitz nekaezina	Ezin dut umearen hiperaktibitate nekagaitz hori jasan.	30
nostalgia zerbaiten oroipen sentitua	Urte zoriontsu eta ederrak ia denak. Nostalgia puntu bat ere etortzen zaitbertara sartzen naizenetan, ez pentsa.	104
ohartzeke konturatu gabe	Hiru ardo botila hustu ditugu ohartzeke eta horrek ere egin du bere lana.	191
oldarkor erasokor, indar handiz	Urduri eta oldarkor agertu zen bertan, umeak eta emaztea non zueden esaten ez bazioten salaketa bat jarriko zuela mehatxu eginez.	183
oztopatu traba egin	Gaua heldu da eta aterpetxeko ordutegiak oztopatzen ari naizela iruditu zait.	144
patu zoria, destinoa	Ez zertan edo nondik zebilen, beharbada zortea eta patua gehiegi tentatzen ari ginen umeak eta arreba honantz erakarrita...	218
patxada lasaitasuna	Eskerrak Maiteren patxada heredatu duten, aitag ez du horretatik gehiegi eta.	76



peto erabatekoa, benetakoa	Sukaldari petoa bihurtu da gure aita.	71
petraldu lelo jarri	Amarekin petraldu da agian, baina badakit galdetuta ere ez didala erantzungo.	15
pikaro maltzurra, bihurria, barrabasa	Bere barre pikaro eta gaiztoa entzuten da atzetik, beti hain berea izan duena.	19
piura pinta	Gorbata berdea, marra granateekin. Piura patetikoa dut. Sid Vicious- ek korroskada bat botako lidake muturrera orain ikusiko banindu.	53
planta itxura, jitea	Metro eta laurogei inguru, planta onekoa, ilea ondo moztuta, arropa txukun geratzen zaio, dotore ibiltzen da...	167
popatik hartzera bidali pikutara bidali, kaka artera	Gustura bidaliko nuke popatik hartzera . Atzean duen leiho erraldoia ireki eta bertatik botako nuke.	28
potro barrabilak, koskabiloak	Gustura emango nioke potroetan ostikada bat, baina gero txikitu egin behar banau ere.	96
pozoi substantzia hilgarria	Urduri dago, kontrolatu ezin duen egoera guztietan gertatu ohi zaionez. Pozoiz betetako begirada bat bota dit, lehen-bailen isiltzeko aginduz.	151
premia behar	Zerbait esan behar dudala iruditu zait baina garaiz ulertu dut hitz egiteko premia larrian dagoena bera dela.	107
purrustada protesta keinua edo hitza	Purrustada bat edo beste esanez alde egin du behera.	113
samar nahikoa	Esfortzu handi samarra eginez, gertatu zena oroitzen saiatu naiz.	200
samin atsekabea, tristura	Nor arduratuko da beraien hezkuntzaz, gastuez, maitasunaz, saminaz , beldurraz?	138
samur biguna	Samurra eta gogorra da aldi berean, hunkigarria eta maitagarria.	92
sarraila ixteko mekanismoa	Ateko sarraila irekitzean gertatu da.	192
sarraskia hilkuntza, masakrea	Minutu gutxian denetarik hitz egiten egon gara: Israelgo armadak Palestinako lurretan egindako azken sarraskia ...	117
seko lehorra, doinu zakarrekoa	Aita arropak janzten ari da. Aurpegi serioa du eta “ondo” seko batez erantzun dit zer moduz dagoen galdetu diodanean.	102
sen instintua	Amatasun senak indar askoz nabarmenagoa du Olatzengan. Nik ere ez dut baztertzen oraindik, baina ez dago nire ametsen artean.	159
suak hartuta suminduta, amorrazioz	Suak hartuta , pasillo guztia gurutzatu dut eta amorrut hartu dut aparatua, disimulatu ezinik.	19
suplizio oinazea, mina	Gorputzeko atal batzuk garbitzea suplizio hutsa da eta jatorduak prestatu eta ontziak garbitzeak denbora asko jaten dit.	217
sutan jarri berotu, haserretu	A zer sorpresa hartuko duen. Sutan jarriko da, Beñat, non nagoen jakiten badu...	137
tamalez zoritarrez	Baina tamalez , berandu samar iritsi naiz gaur, ikuskizunaren amaiera bakarrik tokatu zait.	61
tankerako modukoa, gisakoa	Auzitegiak legez kanpo jarri behar zituela ohartu zirenean, EA eta tankerako partidu galtzaile horien babesa bilatu...	150
taxuzko ganorazkoa, behar den bezalakoa	Gustura erantzungo nioke taxuzko zerbait, baina zer arraio ote daki gauza hauetaz berrogeita bi urteko mutilzahar batek?	108
tentazio tentaldia	Atzera begiratzeko tentazioari eutsi diot.	127
trapu zahar bat eginda itxura txarrean, sats eginda	Bera txukun jantzita (...) Ni, ohean botata, trapu zahar bat eginda , saihetsak oihuka eta lepoa jirafa baten antzera.	205



triskantza suntsiketa, txikizioa	Berehala gehitu zaigu Libe ere, sofaren gainean kristoren triskantza sortzeko aukera ikusita.	59
txantxatan bromatan	Kostatu zaio txantxatan ari naizela ohartzea.	122
txatxu ergela, txoriburua, ganorabakoa	Baina okerrena berriketa etengabea da. Berriketa monotono, inozo, zentzugabe, aspergarri eta txatxua .	17
txindurritu kili-kiliak bezalako sentazioa	Esfortzu bat egin eta bainutik atera naiz. Ezker hanka txindurrituta gelditu zait.	23
txortan egin larrua jo, amodioa egin	Gaur hauetakoren batekin txortan egin gabe ez noan etxera!	158
txundituta liluratuta, mira eginda	Bere portaerak ez ninduen ni bakarrik harritu, aita eta ama ere txundituta zituen neskak.	220
ukatu ezetz esan, ez utzi	Tristeia inondik ere, engainua dakarren aldetik. Baina inork ez du ukatuko beharrezkoak ez direnik	179
urratu apurtua	...lotsa eta jakin-mina nahasten diren begirada urratu bat.	187
uxatu aldendu, urrunarazi	...pentsamenduak uxatzen lagunduko didalakoan...	213
uzkur gogo gabe, mesfidati	Aitziber uzkur samar sumatzen dut oraindik nirekin, zerbait esateko gogoia izan eta mihia zapaltzera derrigortuta dagoenak jarri ohi duen betozkoarekin.	55
xarma lilura	— Ipuinak bere denbora behar du xarma ez galtzeko.	35
xehetasun zehaztasuna, detailea	Hitz egindo dugu xehetasunez , baina astean behin psikologo bat etortzen da hiritik...	137
xalebrea bitxia	Xalebrea den beste gauza bat geratu zait ondoren.	69
xume sinplea, xehea, apala	Oso xumeak dira, apaingarri gutxikoak.	144
zaharberritu konpondua	Baserri moduko bat da, handia eta zaharberritua dirudiena.	135
zainzuri frantses-porrua, esparragoa	Zainzuri batzuk, tomatea eta urdaiazpikoa lehenbizi.	149
zainzuri esparrago	Zainzuri batzuk, tomatea eta urdaiazpikoa lehenbizi.	149
zakar bortitza, leuna ez dena	Haize zakar eta nahasia dabil inguruetan.	74
zalaparta harrabotsa, astrapala	Etxea zalapartaz eta eskaerez bete zitzaidan une batetik bestera. Antza denez, espezialistak dira gezurretan, denek ondo ikusten nindutela esan baitzidaten.	219
zaparradan etorri bata bestearen ondoren, trumilka	Tabernatik berrogeita hamar bat pausora nago eta galderak zaparradan datoz bat-batean: damutu eta atzera egin ote du?	129
zapo arrain zapal gozo-gozoa	Bostak aldera atera da. Gero zapo a prestatu behar zuela Joakinekin batera eta ez dakit zer...	71
zapuztu hondatu, defraudatu	Nik ez nuen hain garbi ikusten baina ezin nuen arrebaren ilusioa zapuztu .	222
zatar itsusia	Besoak zabaldu eta keinu zatar bat egin du, pazientzia galtzen ari denak bezala—.	150
zerorrek zeuk	— Begiratu zerorrek argazki horiek- esan dit astiro iribarre ziniko bat ahoan duela.	93
ziniko harropuzkeriaz	— Begiratu zerorrek argazki horiek —esan dit astiro iribarre ziniko bat ahoan duela.	93



zirkinik ez mugimendutxorik ere ez	— <i>¿Crees en el destino?</i> –Nire erreakzio guztiei adi dago, zirkinik ere egin gabe . Ez du nahi inolaz ere bere sentimenduak azaleratzerik.	237
ziztrin eskasa, ezdeusa, baliogabea	— Txabola txiki eta ziztrin batean bizi zirela dio.	121
zorro estalkia	...deseroso samarrak diruditen sofa handiak, plastikozko zorro berrietan bilduriko materialak...	69
zotín hipaka, negar antzeko arnasa	— Ez zait toki hau gustatzen, osaba. Etxera bueltatu nahi dut –esan dit malko estu eta zotín artetik.	188
zozo ergela	Irribarre zozo bat bota diot konfiantza hartu dezan baina ez du aurpegirik aldatu.	114
zuhurtzi tentua, prudentzia	Hasiera batean ez dirudiela oso larria, baina emaitzen zain egon behar dela. Zuhurtzia oso garrantzitsua dela kasu hauetan.	101
zuriegi faltsuegia	Zuriegia iruditu zait bere portaera, faltsua, lehendik nolabait antzeztua duenaren itxurakoa.	149